

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Narrazioak ardatz: generotasuna eta narrazio- ekintzaren berezitasunak

Ines Garcia-Azkoaga, Leire Diaz de Gereñu, Luis Mari Larringan
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

EUSKARA OINARRI ETA ELEANIZTASUNA HELBURU

UEU, 2019ko urriaren 4-5

Oihaneder, Gasteiz



<https://www.periodistadigital.com/cultura/religion/20161201/recorrer-caminos-nuevos-2-noticia-689401643030/>

Baziren behin hiru lagun ez zutenak elkar ezagutzen. Batek bazekien han, basoan gordeta, bazela etxe bat hizkuntzaren ezaugarri guztiak bere baitan gordetzen zituena. Bigarrenak bazekien zenbaitek egurrez egina zutela etxea, baina etxe ahula zela eta euskarri hobea behar zuela mintzairaren ezaugarri guztiak ondo biltzeko. Halaber, hirugarrenak lastozko etxeak ezagutzen zituen eta bazekien puts eginez gero, haiek erraz erortzen zirela. Horrela, basoko damaren eta bere iratxoan ahotsen oihartzunari jarraitu, eta basoan zehar abiatu ziren bakoitza bere aldetik. Baina, basoko bideak estuak eta sastrakaz beteta zeudenez batzuetan ez zuten garbi ikusten nondik jo. Hala eta guztiz ere, gure bidegile kementsuak, azkenean, gurutzebide batean elkartu ziren; hirurak etxe sendo hura aurkitu nahian. Ibili eta ibili egin ondoren konturatu ziren baso hartan ez zegoela etxerik, eta etxea haiek egin behar zutela. Halaber, basoak eskaintzen zituen osagaiak era askotara balia zitezkeela konturatu ziren. Horrela, jakituria eta basoak haien eskura jarritako osagarriak baliatuta etxea eraikitzen hasi ziren. Harrezkero urteak igaro diren arren oraindik asko falta zaie etxe sendo eta handia izateko, baina zatika-zatika orain basoan etxearen traza ikus daiteke, lehen ez bezala. Eta horrela bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Apatako plazan.

“Testuaren etxe barnera arrakastaz iritsi ez garelako, edota testuaren eta diskurtsoaren giltzaz oraindik behar adina jabetu ez garelako-edo, testu-azterketara jotzeko erosotasuna falta zaigu. Aurrera egin beharrean gaude (...).”
(Larringan, 2007: 119).

Kezka zenbait abiapuntuan

Euskara

Hizkuntzaren / Mintzairaren
funtzionamendua

Hizkuntz(ar)en irakaskuntza

GAUERDIKO SUAK


Biztan duela urte zehar Errumaniako oihanetako herriak batean Mirka lehenko hamahiru urteko neska bat. Edoia aurrean eserita zegoen gogor hantak bazek lekuak jötzen zuen. Zuhaitzean adarrak ditzidka zeuden eguzkitan. Zeruak urdin-urdin zegoen eta tarteka hodi bakanak agertzen ziren. Eguzi zoragarria leinuko garfianekin ehizara joateko, baina bera neska zen eta gogo txarrekin bazen erri, alia zaharriari ligituzten geratu behar, ehizazee leinuko gizonetokoa bakarriz zegoen egintzura batenen.

Bat-batean, ehizara joandakoak berri beldurgarri batekin itzuli ziren herria: beste leinu bateko gzerfariak halengantz zetozen herriaz jabetu nahian. Oso odolozaleak ziren, berriak baino askoz ere gehiago, eta berri guzta suntsituko zuten.

Eguziaren lantaburua zela eta, leinuko zaharrenez gogorlari agintari taldea lehenbalehen elkarteko delalidia egin zen; horietako bat Mirkaren aita zen eta joan aurretik esan zion neskatok:

Er diego zertaz kezkatutik, aita. Goozon gutxiok mendal aldera eta liruabarron trunio bakoltaren ganean suak pituko ditugu. Gauerdiak, gerlarri bizkorrenek su horien galnetik salto egingo dute oihuka eta egusentia baino lehengo etsaiek alde egingo dute herririk. Agintari taldeak onartu zuen Mirka atari egindako proposamena eta dena neska esan bezala gertatu zen. Etsaiek horitar azko jayela sinistu eta lesterka biztan itis egin zuten. Hurrengo egunean, herriarri guztek eskertu zuten Mirka agertutako adorea eta izan zuen burutapena, eta agintari taldeak, bere omenez, neskei ehizan ibiltzea galarazten zien lege zaharra balorik gabe utzi zuten.


(Euskara eta Literatura, DBH Lehen Zikloa, 1, Elkar & Gie, 1996, 104. or.)



ANTUIME-ERREA

Osporrik Antuime-errea ere gaitza, ura, baratzirik. Presokito Leheni katu zati egin antuime, eta hartu edozein laurden, atzeko zati aurreko. Gero zati ur pikoa botelki busti. Ondoren, gaitza eman eta baratzuri zatia antuime-pusletan zabeldutakoa, libean sartu. Olibetan abe bat erre deretan, beste aldeba jardu eta utzi egiten.


(Euskal Hizkuntza eta Literatura, DBH-3, Erriin proiektua, 1997, 35 or.)



| KOMAZ 2016-2017 OHEZTUA | | KOMAZ JAKINAKO ERABERITZEMENAK | |
|-------------------------|----|--------------------------------|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | 32 |



Elkarbizitzan gauzatzen diren mintzaira-erabilera sozialak



Gramatika

... da ezin aldatuzko lege,
... kaiteak onurak baino handiago.
az:

... kasu guztietan, aditzari atxikia idat
balioz, e.a., eta ez *bai() naiz, *bai()

iskal Hitzegia, s.v. bait.
(Euskaltzaindi)

Arau akademikoa

BERBAZKO EKOIZPEN ZENBAIT


MEZUAK




KOMUNIKAZIO-FORMAK

AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK ETA DISKURTSOAK


ZENBAT BURU HAINBAT ABURU



TESTUEN EKOIZPEN-BALDINTZEN ESKEMA



GENEROTASUNA



Erregularitasunak

Testu-generoa

HIPOTESIA

Mintzaira-ekintzaren nolakoa den, testualtasunean (generotasunean) eragiten du, testu-antolatzaileak, kohesioa, planifikazioa... Haren baliabide diskriminatzaileak dira. Elementu horien konfigurazio ezberdinak antzeman ahal izango dira testu bakoitzaren xedearen arabera

METODOLOGIA ENPIRIKOAREN BARRENA EGINDAKO BIDEA

KONEXIOA (Testu-
antolatzaileak)

KOHESIOA (Anaforak)


PLANIFIKAZIOA

IRITZIZKO TESTUAK

IKASLEEN TESTU IDATZIAK
(Narrazioak, gutunak,
azalpenak)

AHOZKO KONTA-SAIOAK

TESTU GENEROAREN
ERREGULARTASUNEN
BILA



ADIBIDIDE GISA

TESTU-ANTOLATZAILEAK

- BALIO ANITZEKO
LOTURA-OSAGAIK

(Larringan, 2007)

Testuratze balioa:

- HALABER, GAINERA → emendiozko partikulak: loturak gauzatzen dituzte eta semantikoki erreferentziatzko mundua hedatzen dute.

Balio enuntziatiboa:

- HALABER → elementu berri baten ekartzea egiten du (A+B), baina bata ez zaio besteari nagusitzen → neutrotasuna.
- GAINERA → A eta B ez dira maila berekoak.
 - Ez dira ordezkagarriak.
 - Enuntziatzaileak mintza-jarduearen orientazioa aldatzeko eta mozketak egiteko indarra adierazten du.
 - B-k nolabaikete zuzenketa adierazten du → balio argumentatiboa.

Balio diskurtsiboa: estate baterako, GAINERAREN erabilera ezberdinak:

- [...] demokratikoa da eta, gainera, bilerak ez dira publikoak [...]
- Hitza eskatzen dut [...] eta lotsa gutxirekin gainera, [...]
- Zaude ixilik! Gainera ez du ezertarako balio!
- Ah!, gainera hauek guztiak aintzat hartu behar.

Balio planifikatzailea:

- Nekez agertzen da GAINERA + segida + GAINERA + segida.
- Testu berean ez da asko errepikatzen.
- Ez da hasieran ateratzen, ezta arrazoinamenduaren lehen urratsean ere.

ADIBIDE GISA

IZEN-KOHESIOA

- BALIO ANITZA
- ERREPIKAPENA VS ORDEZKATZE LEXIKOA
- TESTUEN ARABERAKO AUKERAK

Simplea bezain konplexua:

- Errepikapenetik: *“hiru lagun...hirurak”*
- Asoziaziora: *“basoko damaren eta iratxoan...”; “sagarrak egosi ditut...konpota hori potean sartu dut”*

Konexio eta kohesioaren arteko mugakide:

- Horregatik... vs [...], horregatik, [...]
- *Urak ukitzen duenean,[...] ezin izaten du bere baitan likidorik hartu; horregatik, urari ihes eginez eutsi nahi izaten dio [...]*
- *[...] lagunek badakite harena ez dela motibo txiki ezdeus bat... horregatik isildu dira [...]*

Balio laburbiltzailea:

- [...] Hori... / Hori guztia...

Kontzeptualizatze balioa:

- Laburtzeaz gain, **modalizazioarekin harremanetan**: *“Gure bidegile kementsuak”*

Estetiko bezain funtzionala:

- **Estetikoa**: *“etxe bat, etxe bat, etxola bat... (literatuan, ahozko kontakizunetan...)”*
- Ordezkatze lexikal **aberasgarriak**: *“etxe bat ... XVI mendeko jauregi hori”*
- **Ezinbesteko errepikapena**:
 - - Balio ikonikoa duten izendapenekin: *“Txano Gorritxu...”*
 - - Testu teknikoetan: *“[...] bi ospitaletan homeopatia erabiltzen da, eta mediku askok agintzen dizkiete tratamendu homeopatikoa beren pazienteei. Horren aurrean, homeopatia arriskutsua izan daitekeela [...]. Izan ere, homeopatia erabiltzeak [...] eta, beraz, homeopatiaren ahalmen sendagarrian [...].”*

Narrazioa, era askotako kohesioaren agerleku eta ikasleku:

- Progresio didaktiko egokien beharra adinaren arabera eta testu-generoari lotuta.

KONTALARI ADITUEN NARRAZIOA

Narrazioa: besterik zer landu liteke?

- Eskolan tradizio handia.
- Zientzia eta diziplina askoren langai.

Narratologiak izugarri garatu da; testu azterketa, e.a....

- Idatziak baldintzatutako ikuspegia: egitura deskontestualizatuak eta testu "itxiak" aztertu dira.

Ahozko narrazioa

- Ahanztura metodologikoa (Bres, 1997):
 - Narrazio prozesu gisa.
 - Interlokuzioan ko-eraikitako mintzaira egintza.
- Solasaren azterketen barruan garatu da haren azterketa.

Kontalaritza

- Praktika sozio-diskurtsibo minorizatua.
- Ahozko kontaketa tradizionalaren idealizazio desitxuratu eta antzua (Vernus, 2004).


KONTA SAIOAREN AZPIEGITURA



- Bi ardatz:
 - Lineala edo horizontala.
 - Bertikala
- Lotura logiko/kasualak, denborazkoak, baina baita ere motibazio ikoniko/estetikoa.

KONTA SAIOEN AZPIEGITURA TESTUALA

(Diaz de Gereñu, 2016)




KONTA SAIOAREN AZPIEGITURA



- Planifikazioa lokala eta organikoa.
- Ardatz bertikala: **diskurtso egintza narratibo** eta **ez narratiboek ALDAKETA** dakarte.
- Bi alderdi uztartzen dituzte:
 - **Interakzio-markoa**
 - **Narrazio mailak** (metadiegesia).

INTERAKZIO-MARKOA



ADIBIDEZ: ERREPIKAPENA PERTSONAIETAN

- Zer errepikatzen da?
- Nola eta zertarako errepikatzen da?

Kohesio baliabide bereizgarriak ditu kontaketak (Garcia Azkoaga & Diaz de Gereñu, 2009)

- Errepikapena kohesio baliabideetako bat.
- Errepikapena definitu eta mugatu.

Solas arruntetako errepikapenekin alderatuta, bereizgarriak. Narratzailearen poetikaz harago **generoarenak berarenak**:

- Pertsonaia nagusia da protagonista errepikatuena. Antagonista gutxien = errepikatzen dena eta EZ DENA ere **esanguratsua da**.
- Pasarte/une esanguratsuak markatzen dira interakzioan pertsonaiaren errepikapenaren bitartez.

Hiru mota:

- SARETUAK
- METATUAK
- INTERLOKUZIOZKOAK

Errepikapena eta funtzio metanarratiboa:

- Funtzi askotarikoak:
 - Pertsonaien errepikapenak badu zerikusirik interakzio-markoa eta maila narratiboekin uztartzearekin.
 - Konexio-baliabide; Interakzioan gidatzen du; Modalizatu egiten du.


Babcock (1977):

- Folklorean metanarrazioa ez da kontuan izan.
- Errepikapena metanarrazio inplizituaren osagai sarkor eta hedatuena.

Adibide bat

Errepikapen metatua kontakizunetan:

- (...) hiru gizonak ibili zien / herriz herri / eta holako batez herri batetik pasatzerakoan eta **landa** baten ondotik pasatzerakoan / **gari** landa baten ondotik ikusi zuten hortxe gizon bat / aizkora batekin / garia / mozten / epaiten / **aizkora! harrizko aizkora / harrizko aizkora batekin! au:!** hiruk gelditu zien eta / i (entzuleei zuzenduz igitaia zer den ulertuko ez balute bezala) a igitaia! m! igi / igitaia da / holako esku tresna bat / ho:lako itxura bat daukana / (keinuz eta onomatopeiez irudikatuko du) *ui pin tan!* (ingelesezko *all right*) ol rait? **ho:lakoa!**



GUREGANATU

EGOKITU

Lurrean belarra / airean notatxoak herriko enparantzan urratsak eta nire ahotik / hitzak / o o oooo / hara! **GURE HERRIAN** bizi ziren / **GURE HERRI HARTAN** ziren **HIRU / HIRU / lagun** / baina ez zuten **ELKAR EZAGUTZEN / EZ EZ!** EZ zuten **inoiz** **ELKAR**ren berri izan / ikusi **BAI / a BAI!** **HORI BAI / EZAGUTZEN** dut **HORI / a!** baina bistaz / besterik ez () / **BAINA** haietako **batek / lehenak** **BAZEKIEN** han **BASOAN / BASOAREN BARREN BARRENEAN / BASOAREN ILUNA HASTEN ZEN LEKU HORTAN / BAZEGOELA GORDETA ES-TXE BAT / ETXE BAT / ETXOLA BAT / TXABOLA:::** / Hura zen / **HIZKUNTZAREN / entzun ondo / hizkuntzalari asko zaudete tartean / interesa duzue e:::** / **bo / kontatuko dizuet!** **HIZ-KUN-TZAREN / HIZKUNTZAREN** ezaugarri guztiak bere baitan **GORDE**tzen zituena / (ahopeka) *beretzat / GORDEak / guztiak!* **BIGARRENak / BIGARREN honek** **BAZEKIEN** zenbaiten (...)

“Testuaren etxe barnera arrakastaz iritsi ez garelako, edota testuaren eta diskurtsoaren giltzaz oraindik behar adina jabetu ez garelako-edo, testu-azterketara jotzeko erosotasuna falta zaigu. Aurrera egin beharrean gaude (...).” (Larringan, 2007: 119).

ERREFERENTZIAK

- Babcock, B. (1977). The story in the story: metanarration in Folk Narrative. In Bauman, R., *Verbal art as performance*. Massachusetts: Newbury House Publishers, 61-79.
- Laforest, M. (1996). *Autour de la narration*. Québec: Nuit Blanche Éditeur.
- Bronckart, J.-P. (1996). *Activité langagière, textes et discours. Pour un interaccionisme socio-discoursif*. Lausana: Delachaux-Niestlé. [Traducción al castellano: *Actividad verbal, textos y discursos*. Salamanca: Infancia y Aprendizaje, 2004.]
- Diaz de Gereñu, L. (2016). [Jendaurreko kontu-saioa](#): gertakari sozio-diskurtsiboa eta testu-genero berezitua. Doktoreko tesia, UPV/EHU.
- Diaz de Gereñu L. & García-Azkoaga I.M. (2010). “Cohesión en situación de interacción: el caso de la narración”, *Revista de Estudos Linguísticos/Linguistic Studies*, 5, Universidad de Lisboa, 177-194.
- Garcia-Azkoaga, I.M. (2018). Cohesión nominal en la narración escrita compuesta por alumnos euskaldunes, *Revista Signos. Estudios de Lingüística*, vol. 51, nº 97. 134-152.
- Halliday, M.A.K. eta Hasan, R. (1976). *Cohesion in English*. London: Longman.
- Larringan, L.M. (2009, argitaratzeke). *Esaldia, testua, diskurtsoa: hiru perspektiba teoriko eta didaktiko*.
- Maingueneau, D. (1987). *Nouvelles tendances en analyse du discours*: Paris: Hachette.
- Garcia-Azkoaga, I.M. (2016). *Anafora eta erreferentziakidetasuna: izen-kohesioarako baliabideak*. Bilbao: UEU.
- Garcia-Azkoaga, I.M. & Idiazabal, I. (eds.) (2015). *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Bilbao: Universidad del País Vasco.
- García-Azkoaga I.M., Idiazabal, I. & Larringan L.M. (2009). Contar el mismo cuento a los 5 y a los 8 años. Una explicación desde la perspectiva del interaccionismo socio-discursivo, *Revista de Estudos/Linguísticos Linguistic Studies* 3, Lisboa, Universidad de Lisboa, 211-226.
- Larringan, L.M. (2007). Testu-motak eta testu-antolatzaileak: zer lotura? in I. Plazaola & P. Alonso (arg.): *Hizkuntza Ekinean: Diskurtsoak eta Generoak. Euskal Testuen Azterketa Korrantea*, Donostia: Erein, 167-186.
- Van Dijk, T. (1978). *La ciencia del texto. Un enfoque interdisciplinario*. Barcelona: Paidós.
- Vernus, M. (2004). *La veillée. Découverte d'une tradition*. Divonne-les Bains: Cabédita.

Eta horrela bazan edo ez bazan... emaitzak plazan!

ESKERRIK ASKO!